



4-DIRU ITURRIAK

4.1 Hasierako inbertsioa

Gure enpresa berria martxan jartzeko, 6.820 € behar ditugu lehenengo inbertsioak egiteko. Horretarako, hainbat finantzaketa-aukera aztertu ditugu, batez ere subentzioak eta maileguak.

4.2 Subentzioa: Elkar-EKIN Lanean (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Gure enpresa berria sortzeko, hainbat laguntza-aukera aztertu ondoren, “Elkar-EKIN Lanean” subentzioa aukeratu dugu hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, lanpostuak sortu eta mantentzeko laguntza ematen duelako. Gure helburua enplegua sortzea da, eta hori gure komunitatean eragin positiboa izateko oso garrantzitsua da.

Bigarrenik, merkatu-azterketak eta proiektuaren bideragarritasuna finantzatzeko aukera eskaintzen du. Horrek gure negozio-planaren arrakasta bermatzen laguntzen du, arrisku ekonomikoak murriztuz eta estrategia egoki bat planifikatuz.

Halaber, subentzioak kostuaren %50–%85 estaltzen du, gure aurrekontua arintzen laguntzen du eta inbertsioak modu eraginkorrean kudeatzeko aukera ematen digu. Gainera, programa honek Gipuzkoan jarduteko aukera ematen digu, gure presentzia lokalari balioa emanez eta komunitatearekin harreman ona sortuz.

Era berean, subentzioak eskaintzen duen aholkularitza eta laguntza teknikoa oso baliagarria da, plan ekonomikoak eta estrategia komertzialak hobetzeko. Gure proiektua berritzailea eta jasangarria da, eta arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, uste dugu Elkar-EKIN Lanean dela gure enpresa berriarentzako laguntza egokiena eta estrategikorrena.

[Elkar-EKIN Lanean – Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

4.3 Mailegua: Laboral Kutxa

Bestalde, Laboral Kutxa bankuarekin hitz egin dugu, Josu langilearekin, eta mailegua eskatu diogu. Hasieran bere erantzunaren zain egon gara, eta ondoren Kutxa Laboraleko langileak erantzun digu.



Azaldutako baldintzen arabera, 10.000 €-ko mailegua eskatuz gero, dirua 5 urtean itzuli beharko genuke, %5eko interesekin. Urteko kuota 2.309,75 €-koa izango litzateke, hilabeteko kuota 192,48 €-koa, eta guztira ordaindu beharreko interesak 1.548,74 €-koak izango lirateke.